

AFRIKA'KO IPUIN / ALEGIAK



ERBIAREN BUZTANA

Antxiña, leoia ta katamixerra lagunak ziran. Beti bardin pentsatzen eben eta alkar lagundu be bai. Katamixerrak ezta ekarten eban eta leoiak okelea.

Baiña erbi oker batek biak alkarragaz asarretzea nai eban. Janari-billa ebiltzala erbia katamixerraren abira sartu zan. Beste biak etorri ziranean, leoiak katamixerrari dei egin eutsan okelea emoteko, baiña erbiak, katamixerraren abotsa artuta, erantzun eban:

—Ez dot gura zure okelea, txarra ta gogorra da-ta. Nik ezta jango dot, ona eta indar aundikoa dalako.

Leoia asarratu egin zan, baiña adiskide ziran lez, oraindiño ez eban zigortu gura izan katamixerra.

Arratsalde beratan, katamixerrak leoiari batu eban ezta emoteko deitu eutsonean,erbiak leoi-abotsagaz esan eutson:

Ez dot gura zure ezta, orain be ez eta iñoz be ez geiago. Ez dakit zer egin zugaz daukadan adiskidetasunagaz be.

Erantzun onek tristetu egin eban katamixerra eta leoiak gertatutako okelea ez jatea erabagi eban.

Egun batzuk igaro ebezan biak asarretuta. Goiz baten, bidean alkar ikusi ebenean, alkarrari etaundu eutsoen aldakuntza orren zergaitia. Bear ziran azalpenak emon-ondoren, ulertu eben erbiaren okerkeria eta irakatsi on bat oneri emotea erabagi eben. Urrengo egunean alkarrari dei egin eutsoen, beti lez, jateko. Katamixera asi zan leoiari deika eta erbi ezkutatuak erantzun eban:

—Esan dautzut zure eztiagaz zer egin ez dakidala! Ez nagizu aspertu geiago pizti ganorabako orrek!

—Zergaitik iraintzen nozu, adiskide? —itandu eban katamixerrak.

—Ondo sartu egizu buruan! Ni ez geiago zure adiskidea! —erantzun eban erbiak.

—Eta ni noren laguna naz-esan eutsan leoiak zemaitsu aurrera urtenda.

Erbi maltzurak iges egin eban, baiña katamixerrak arrapau eban beingo baten, buztanetik elduta eta buztan-zati on bat kendu eutson erbiari. Onek minduta egin eban iges eta geiago ez zan agertu.

Leoia ta katamixerra, arazoa amaitu-ondoren, pozik joan ziran jatera.

Eztabaidea eraiten daunak

Errukirik ez dau lortuko.